

## **Funtsezko jarduerak**

Enpresaren funtsezko jarduerak hasieran gure kabuz egingo ditugu eta enpresaren sarrerek igotzen doazen einean langileak kontratatuz joango gara lanak egiteko. Funtsezko jardueren artean garbiketa lanak, enpresaren kontuak eraman, klienteak atenditzea eta sare sozialak eramatea ditugu.

Gaur egun sare sozialak oso garrantzitsuak dira enpresatan produktua jende gehiagora iristeko modu egokia delako, beraz sare sozialetako kontuak (instagram, twitter eta facebook) kontrolatzea komeni dela uste dugu horrela jendea erakartzeko. Lan hau hasieran Markel-ek egingo du esperientzia duelako eta aurrerago horretan arituko den langile bat edo gehiago kontratatuko ditugu.

Bestetik enpresaren kontuak eraman behar dira, sarrerek kostuak eta erabakitzeko dirua zertara bideratu. Lander-ek eta Oier-ek egingo dute. Ideia nagusia lokal gehiago irekitzea denez aurrezten sahiatuko gara beste lokal bat lortu ahal izateko, horrela gainera arazoak izanez gero dirua edukiko genuke konpontzeko.

Zerbitzu bat eskeiniko dugunez oso garrantzitsua da klienteei arrera ona egitea, beraz funtsezkoa da arreran jende egokia egotea. Erabaki dugu Mikel egotea arreran sarrera kobratzen eta galderak erantzuten.

Holako lokal batean oso garrantzitsua da garbitasuna, beraz garbiketa enpresa bat kontratatuko dugu lan horiek egiteko klienteak eroso egoteko eta dena egoera onean mantentzeko.